


## SEGMENTAZIOA:

Jostailu liburutegia bereziki 2-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Baina, errealitatean haur horien gurasoei eta hirugarren adineko aiton-amonei ere zuzenduta dago gure zerbitzua, ez baitira haurrak jostailuak erosten dituztenak.

Gure enpresak Errenterian edukiko du lokal nagusia. Errenterian dago kokatuta bertan 5367 haur daudelako guztira, hau da inguruko herrien artean haur gehien dituen herria da. Ondoan dauden Lezo eta Oiartzun herriak haur kopuru baxuagoa daukate. Lezon 854 haur daude eta Oiartzunen 1584. Bi herri hauek errenteriako jostailu liburutegia erabiltzeko aukera izango dute.

Gure enpresak 2-4 urtetako haurrentzat jostailuak edukiko ditu. Adin hortarako egokiak direnak. Hau kontuan eduki behar da, askotan adin hau dakaten haurrentzat jostailuak aurkitzea zaila delako. Gainera, gaur egun Errenterian urte-bitarte honetan 1.563  haur daude, eta familia hauentzat onuragarria izan daiteke jostailuak eskuratzeko erreztasuna.

Argi dago gure bezero nagusiak haurrak direla, baina kontuan hartu behar ditugu haien gurasoak; azkenean beraiek dira gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua

erabiliko dutenak. Errenterian gutxi gorabehera 10.000 guraso daude. Pertsona bakoitzak hilabetean bataz esteko 1.131 euroko soldata jasotzen du. Bestalde, langabezia tasa txikia da. Datu hauek onuragarriak izan daitezke gure enpresarentzako.

Gainera, azkeneko urteetan jaiotze tasak gora egin du; geroz eta haur gehiago jaiotzen ari dira. Errenterian azkeneko urteetan % igo da jaiotze tasa. Datu hau oso onuragarria da gure enpresarentzako.



